



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/04/26

Bizkaiko Batzar Nagusiek gerrek eragindako biktimak ekarri ditue gogora Gernikako bonbardaketaren 80. urteurrenean

Gerniak gerren kontrako eta bakearen aldeko oihu isila egin dau gaur. Gaur, Gernikako bonbardaketatik 80 urte beteten diran egunean, Batzar Nagusiek bat egin gura izan dabe Gernikan gertakari horreek gogorarazoteko egiten ari diran ekintzakaz, 1937ko apirilaren 26 haretako biktima errubakoei omenaldia eskiniz.

Gaurko Osokoa Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako presidentearen berbakaz hasi da. Berba horreetan, Gernikako bonbardaketan hil ziran pertsona guztiak eta “gerrek eragindako errubako biktima guztiak” gogorarazo ditu. Eguerdiko 12:00etan osokoa gelditu egin da, Gernikako Arbolaren ondoan minutu bateko isilunea gordeteko. Isilune horregaz batzarkide guztiek eta Foru Gobernuak egin dabe bat.

Saioaren hasieran, Batzar Nagusietako presidentek azpimarratu dau gaur 80 urte beteten dirala hegazkin naziek Gernika bonbardeau ebenetik eta, hori dala eta, egun horretan hil ziran pertsona guztiak eta “gerra guztiek eragindako errubako biktima guztiak” gogorarazo gura izan ditu.

Otadui agur berezia eskini deutso Batzarretan egon dan Paolo Albanese Sartagudako alkateari. Urtarrietik Gernikako Arbolaren kimu bat ari da hazten udalerrri horretan eta, azpimarratu dauenez, joan dan eguenetik, Arbolaren, “askatasunen eta bakea lortzeko gogoaren sinboloaren”, beste kimu bat “sustraiak botaten dago” Auschwich-en.

Batzar Nagusietako presidentek esan dauenez, indarkeria eta basakeria jasan eben herriek iragan komun hori konpartitzen dabe, eta, ezelango zalantza barik, “pertsona guztien duintasunaren errespetuan oinarritutako etorkizuna eregiko dabe”, esan dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
26/04/2017

Las Juntas Generales recuerdan a las víctimas de las guerras en el 80 aniversario del bombardeo de Gernika

Gernika ha lanzado hoy un grito silencioso en contra de las guerras y a favor de la paz. Justamente hoy cuando se cumplen 80 años del bombardeo de Gernika, las Juntas Generales se han querido sumar a los actos que se están celebrando en la villa foral para recordar estos hechos y hacer un homenaje a las víctimas inocentes de aquel 26 de abril de 1937.

El pleno de hoy ha comenzado con unas palabras de la presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, recordando a todas las personas que murieron en el bombardeo de Gernika y "a todas las víctimas inocentes de las guerras". A las 12 del mediodía el pleno se ha detenido para, junto al árbol de Gernika, guardar un minuto de silencio, al que se han sumado junteros y junteras, y el Gobierno foral.

La presidenta de las Juntas Generales ha destacado al inicio de la sesión que hoy se cumplen 80 años del bombardeo de Gernika por parte de la aviación nazi y, por ello, ha querido recordar a todas las personas que murieron ese día y "a todas las víctimas inocentes de todas las guerras".

Otadui ha trasladado un saludo especial a Paolo Albanese, alcalde de Sartaguda, presente en el hemicycle- localidad donde desde enero crece un retoño de Gernika y ha subrayado también que desde el jueves pasado también "echa raíces", en este caso, en Auschwitz otro retoño del Árbol, "símbolo de las libertades y del anhelo de paz".

La presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia ha afirmado que los pueblos que sufrieron la violencia y la barbarie comparten un pasado común y se ha mostrado convencida de que construirán un "futuro basado en el respeto a la dignidad de todas las personas".